# BESTELAKO XEDAPENAK

## HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

## 2875

*94/2014 DEKRETUA, ekainaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko Bake Epaitegietako lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzeko dena.*

Uztailaren 26ko 179/2011 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko Bake Epaitegietako lanpostuen zerrendak onartu ziren.

Lanpostuen zerrendak Justizia Administrazioaren barne-egiturak antolatzeko baliabideak dira. Beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu ondoren, aldeko txostena jaso duten aldaketak lanpostuen zerrendetan sartu behar dira aldian-aldian, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 521., 522. eta 523. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Ondorioz, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2014ko ekainaren 10ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Onartzea Usurbilgo Bake Epaitegiari dagozkion lanpostuen zerrendan egindako aldaketak (Idazkaritzen Elkartea). Zerrenda horiek dekretu honen eranskinean daude jasota.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko ekainaren 10ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

ERANSKINA, EKAINAREN 10EKO 94/2014 DEKRETUARENA

USURBILGO BAKE EPAITEGIARI DAGOZKION LANPOSTUEN ZERRENDAN EGINDAKO ALDAKETAK (IDAZKARITZEN ELKARTEA)

GIPUZKOA

**Aldaketa-mota: Amortizazioa**
Saila: Herri Administrazio eta Justizia Saila
Zentro kudeatzailea: Justizia Administrazioaren Zuzendaritza
Destinoko Zentroa: Usurbilgo Bake Epaitegia (Elkartea)
Udalerria: Usurbil

| Aldaketa-mota | Lanpostua | Dotazioa | Lanpostuaren izena | Lanpostu-mota | Udalerria | Betetzeko era | Taldea | Kidegoa | Titulazio akademikoa | Berariazko ezagutzak | Hizkuntza-eskakizuna | Hizkuntza-berezitasunaren data | Esperientzia | Lanpostuaren osagarri orokorra | Berariazko osagarria | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Amortizazioa | 480007 | 26 | Prozesu eta Administrazio kudeatzailea Bake-idazkaria | S | Usurbil | BL | B | Prozesu eta Administrazio Kudeaketa | Diplomatura | | 3 | 2015/01 | | 3.509,76 | 9.161,07 | |

**Aldaketa-mota: Sorrera**
Saila: Herri Administrazio eta Justizia Saila
Zentro kudeatzailea: Justizia Administrazioaren Zuzendaritza
Destinoko Zentroa: Usurbilgo Bake Epaitegia (Elkartea)
Udalerria: Usurbil

| Aldaketa-mota | Lanpostua | Dotazioa | Lanpostuaren izena | Lanpostu-mota | Udalerria | Betetzeko era | Taldea | Kidegoa | Titulazio akademikoa | Berariazko ezagutzak | Hizkuntza-eskakizuna | Hizkuntza-berezitasunaren data | Esperientzia | Lanpostuaren osagarri orokorra | Berariazko osagarria | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Sorrera | 480007 | 65 | Prozesu eta Administrazio kudeatzailea Bake-idazkaria | S | Usurbil | BL | B | Prozesu eta Administrazio Kudeaketa | Diplomatura | | 3 | 2010/01 | | 3.509,76 | 9.161,07 | |